

# Kapitanenea 1850-2010: kale baten bilakaera 160 urtean zehar

Josean Ruiz de Azua

**D**so gutxi dakigu aintzinako Erreteriaz: data eta izen batzuk, besterik ez. Baina, nola irudika dezakegu orduko bizimodua, jendearen itxura, kaleetako usaina? Gure herriak zer itxura izango zuen asmatzea ere ez da erraza, ez baitago XIX. mendea baina lehenagoko Erreteriarako irudirik eta XIX. mendeko ditugun irudi balekoak ez dira hamarrera iristen, oso urrutitik eta xeheetasunik gabe egindako grabatu batzuk alde batera utzita.

Irudi horien egileak honako hauek dira: Henry Wilkinson (1837), Blanche Hennebutte (1850 inguruan), Fidel Mújica (1850 inguruan), Didier Petit de Meuville (1858 eta 1864), Laureano Gordon, Ángel Rodríguez Tejero (1874), Ángel Pirala (1894 inguruan) eta Sprenger.

Irudi hauek guztiak Erreteriarako bista orokorrak erakusten dizkigute, bi salbuespenekin: Ángel Pirala eta Blanche Hennebutterenak, biak eginak bidaia-liburuak ilustratzeko. Irudi hauek orain dela gutxi arte oharkabean pasatu dira: 2003ko udal egutegian argitaratu ziren aurreneko aldiz eta inork gutxik erreparatu die, Wilkinsonen irudi erromantikoaren ondoan ez baitigute gauza handirik esaten.

Hala ere, gure herriko itxura urrun eta idiliko hori aski ezaguna badugu ere hainbat irudiren bitartez, harresiz barnekoa nolakoa izango zen jakiteko ezinbestean baliatu behar ditugu Pirala eta Blanche Hennebutteren irudiak.

Piralaren irudiak ez du zalantzarik sortzen: Jasokundearen Andra Mari eliza –kanpandorra berritu baino lehenago– Santsoenea kaletik ikusita. Blanche Hennebutteren irudian agertzen den zein kale den jakitea, ordea, ez da hain erraza: 1850. urtetik hona kaleak ikaragarri aldatu dira eta.

Irudian kale bat ikusten da eta kalearen muturrean arkudun sarbide bat. Orduko Erreteriar harresitua zegoela kontuan izanda eta harresi horrek bost ate zituela jakinda –Goiko, Beheko, Kapitanenea eta Madalena kaleetan eta Ugarritzeko zubitik Herriko


plazarako kalean– Hennebuttek horietako kale bat marraztu duela ondorioztatu daiteke.

Baina zein sarbide da Blanche Hennebuttek marraztu duena? Zeuden bost sarbideetatik lau berehala baztertu daitezke: Goiko kalekoa, Morrontxo eta Torrekoa dorretxeen artean zegoelako; Beheko kalekoa, Zubiaurre edo Antia jauregiaren ondoan (Alkartetxea) zegoelako; hirugarrena, Ugarritzeko zubia eta Herriko plazaren artean zegoelako; eta, azkena, Magdalena kalekoa, alondegiairean parean zegoelako, Urkia eta Jauregi izeneko etxeen artean. Argazkian, noski, Morrontxo, Torrekoa, Zubiaurre, Urkia edo Jauregi etxeen arrastorik ez.

Aurreko gutzia kontuan izanda, irudian agertzen denak izan behar du Kapitanenea kalea eta, harresiko sarbidea, Fernández de Landa plaza ematen duena. Hori egiaztatzeko, Erreteriarako irudi zaharren peskizan ibili nintzen eta berehala aurkitu nuen Eugenio Figurskiren argazki bat, 1920 ingurukoa (ziurrenik 1920 baino pixka bat lehentxeago aterata), argazki horrek baieztatzen zuen kalea Kapitanenea zela, dezente aldatuta egon arren. Baina, nire harridurarako, geroxeago aurkitu nuen 1900. urte inguruko argazki anonimo bat eta argazkia hori zen, nolabait, Hennebutte eta Figurskiren irudien arteko katebegi galdua.

Hiru irudi horiek, gaur egungo argazki batekin osatuta, Kapitanenea kalea 160 urtean zehar izandako bilakaeraren ikuspegi zabala ematen digute. Izan ere, Erreteriarako kaleetan Kapitanenea kalea izango da gutxien nabarmentzen direnetako bat, eta, hala ere, gure herriko gainontzeko kaleak nola aldatu diren azken mende eta erdian erakusten duen irudi multzorik ez dago.

Hori bai, Biteri kalea 1847an ireki zen eta horren ondorioz hiri-egiturak aldaketa handi bat nozitu zuen, batez ere, Biteri kalea eta Fernandez de Landa plazaren artean dauden kale eta etxeetan. Goiko, Erdiko, Beheko eta Orereta kaleetan, Erreteriarako kale zaharretan alegia, ziurrenik aldaketak ez dira hain sakonak izan.



## Lehen irudia

Liburu honetatik atera da:

“Guide du voyageur de Bayonne a St-Sebastien”. Imprimerie de Veuve Lamaignere. Bayonne, 1852.

Aurreneko irudi hau egina dago Biteri kalea ireki eta urte batzuk geroago, 1852an edo lehentxeago, Biteri kalea 1847an ireki baitzen (garai hartan “Carretera” izena zuena).

Liburuaren egilea, Charles Hennebutte da eta, ilustratzaileak, Blanche Hennebutte eta bere ahizpa, Hélène Feillet. Irudi hau, Blanche Hennebutte Feilletek egin omen zuen. Grabatzailea Jardin izeneko norbait izan zen.

Blanche Jeannette Hennebutte-Feillet Parisen jaio zen, 1814an. Bere aitona, Pernotin margolaria zen, baita bere aita ere: Pierre Jacques Feillet. Blanchek, bion irakaspenak jaso zituen. 1834an Baionara bizitzera joan zen eta 1844an Charles Henry Firmin Hennebutterekin ezkondu zen<sup>1</sup>.

1857an aldera Baionako Marrazketa eta Pintura Eskolako zuzendaria izendatu zuten. 1858an marrazketa eskolak ematen zituen Baionako Association Philomatique izeneko erakundearen. Hainbat erakusketatan parte hartu zuen, Parisen eta Baionan. Miarritzen hil zen, 1886an.

1. Auñamendi Eusko Enziklopedia.

Blanche Hennebuttek Gipuzkoako hainbat herritako (Pasaia, Irun, Hondarribia, Donostia...) irudi ederrak utzi dizkigu: oso ondo marraztuak, koloretsuak eta Henry Wilkinsonen litografiakin alderatuta, zeharo errealistak, ez baitute Wilkinsonek erakusten duen joera erromantikoa.

Errealismo hori agerian geratzen da Hennebutten marrazkia bigarren irudiarekin alderatuz gero, 1900 inguruko argazki anonimoarekin, alegia. Harrigarria da nola bi irudiak ia ikuspuntu beratik hartuta dauden. Aldaketak aldaketa, Hennebuttek egindako grabatuaren xehetasun asko bigarren irudian agertzen dira, zehaztasun osoz. Zentzu horretan, Hennebutteren irudiak, marrazkia izan arren, argazkiaren balioa du. Gorago esan bezala, errealitatearekiko fideltasun hori Gipuzkoako beste herrietako irudietan ere ematen da.

## Bigarren irudia

Argazki anonimoa, 1900 ingurukoa. Ezkerraldean, Txoko Txiki tabernako etxe aurrean, iturri bat dago, aurreko grabatuan agertzen ez dena. Hainbat eraikuntza desagertu dira: harresiko atea, dorretxe itxurako eraikina eta “V” tanke-ara duten eskailera bikoitzetako bat. Egurrezko balkoiek, ordea, bere horretan jarraitzen dute. Etxe batzuek berrituta dirudite. Ezkerreko etxean (Txoko Txiki egondako tabernakoa) erdi puntuko arkuaren ordez, sarbide dintelatua dago.



Bi irudien arteko desberdintasunak azaltzeko honako bi alde hartu behar dira kontuan:

Batetik, jakin badakigu 1842. urte aldean harresiaren egoera txarra zela oso: gerren ondorioz hondatuta zegoen eta gauza bera gertatzen zen etxe dezenterekin. Beraz, harresia hondatuta egoteak eta zereginik ez izateak, eta etxeak berritu beharrak, horrek guztiak, aldaketak ekarri zituen kalearen itxuran.

Bestalde, biztanleriaren hazkundera: 1842 eta 1901 urteen artean Errenteriako biztanleriak izugarrizko hazkundera izan zuen: % 164, 1842tik 1871ra, eta % 277, 1871tik 1901era<sup>2</sup>.

Udal agiritan jasotzen den arabera, urte tarte horretan obra ugari egin ziren etxebizitzetan hazkunde horrek sortutako beharrei erantzuteko; horrela, solairu berriak eraiki eta etxeak garaieran hazi ziren, eta etxebizitza batzuk zatitu egin ziren familia gehiago hartu ahal izateko. Aldaketa nabarmenenak Biteri kalearen ondoko etxeetan gertatu ziren.

Biztanleriaren hazkundeak zerbitzu gehiagoren beharra ekarri zuen, besteak beste, ur hornidura. Hainbat iturri eraiki ziren, horietako bat irudi honetan antzeman daitekeena.

Biteri kalea, Kapitanenea kalea eta Olaziregiren etxearen arteko hutsune triangeluarrean eraiki zen

2. Miguel Barcenilla: *La pequeña Manchester. Origen y consolidación de un núcleo industrial guipuzcoano. Errenteria (1845-1905).*

iturria, 1872. urtean, Francisco Lafargak egindako diseinuari jarraituz<sup>3</sup>.

Estatua batek apaintzen zuen iturria eta banku eta lorategi batzuek hornituta zegoen.

Harresiko arkuari dagokionez, ondo daki-gun bezala, urte horietan hirien hedapenak harresiak desagertzea ekarri zuen. Harresiek eta hirien defentsa-sistemak zuten hainbat elementuk traba egiten zioten hiria zabaltzeari; harresiko ateeak eta arkuek, esate baterako.

1880ko hamarkadan Errenteriako harresiaren bi arku, gutxienez, desagertu ziren: 1880an Ugarritze zubia eta Konstituzio plaza (gaur egun, Herriko plaza) lotzen zituena; eta 1887an Kapitanenea kaleko arku, alegia, lehen irudian agertzen dena<sup>4</sup>.

Errenteriako argazkirik zaharretan arku hori ikus daiteke: Kaputxinoetako Gainatik hartutako ikuspegi orokorrak dira. Elizako dorrea ez da gaur egungoa, baizik eta dorre zaharra, Oiartzun edo Lezokoa bezalako dorre motz eta sendoa. Gure arku ez da xehatasun handiz antzematen, baina egon hor dago<sup>5</sup>.

3. Lourdes Odriozola Oyarbide: *"Una pequeña 'Cibelles' en Errenteria: la fuente de la calle Capitanenea"* 2006ko Oarso aldizkarian.

4. Errenteriako Udal Artxibategia. Lib. 1 Exp. 4 1880/1880 eta Lib. 1 Exp. 81 887/1887.

5. Argazki horiek ikusi nahi dituenak jo dezala 1974. eta 1981. urteetako "Oarso" aldizkaria.



### Hirugarren irudia

Eugenio Figurskik ateratako argazkia, 1920 ingurukoa. Garai horretan Figurskik Errenteriako txokoetako argazki dezente atera zuen eta postal bihurtu. Hau dugu horietako postal bat.

Irudiari erreparatuz, jabetuko gara iturria desagertu dela eta haren ordeztu zehaztasun eta banku batzuk daudela. Aldaketak nabariak dira: etxe gehienak berrituta daude; horrela, etxe berri batek ordezkatu du aurreko argazkian geratzen zen "V" itxurako eskailera bikoitzeko etxea.

Esan bezala, Eugenio Figurski Errenteriako kronista grafiko handia dugu. Polonian jaioa, Lehen Munduko Gerratik ihesean iritsi zen Errenteriara, 1914. urtea baino geroago. Argazkilaria ogibidez, bere bizitzan zehar milaka argazki atera eta garaiko Errenteriako irudi baliotsuak utzi dizkigu. Lander Garrok idatzi zuen artikulua bati esker zera dakigu: Ugarriz jarri zuela laborategia, Lezorako bidean, oso leku aproposoan: Lezora ezkontzera joaten ziren bikoteak derrigorrean Figurskiren estudioaren ondoan pasa behar baitzuten. Kontuan izanda bikote dezente joaten zirela Lezora ezkontzera, ez ziren gutxi laborategian sartzeko tentazioan erortzen zirenak. Figurskik makina bat argazki egin ei zuen horrela. Bera ere herriko neskatza batekin ezkondu zen, Irene Zaballarekin, hain zuzen. Figurski Biteri kalera aldatu zen 1950ean eta lau urte geroago, 1954an, hil zen. Pertsona bakartia bide zen Figurski, atzerriko azentu gogorra inoiz galdu ez zuena eta gaztelaniarekin sekulan ondo moldatu ez zena<sup>6</sup>.

6. Lander Garro: "Poloniako argazkilaria", ON aldizkaria, 2006ko otsaila, 20. zk.

Pertsonak ez ezik Errenteriako kaleak ere erretratatu zituen Figurskik eta lehen aipatu dugun moduan bere argazkiekin postal sail bat ere egin zen, sepia kolore-tonu nahastezinezkoan. Sail horretakoa da "Rentería. Calle de Capitanenea" izena duen irudi hau.

### Laugarren irudia

2010. urtean aterata. "Txoko Txiki" tabernako etxearen aurrean ez dago ez lorategi eta ez bankurik, etxe bat baizik. Etxe guztiak berrituta daude eta, lehenengo grabatuarekin alderatuz gero, soilik "Txoko Txiki" tabernako etxea ezagutu daiteke. Hori bai, erdi ezkutututa dago, aurrean beste etxe bat eraiki dutelako; leku horretan zegoen plaza hein handi batean etxe berri horrek hartu du.

1946an Biteri eta Kapitanenea kaleek bat egiten duten lekuan lorategi bat eraikitzeke espedientea zabaldu zen<sup>7</sup>, eta 1957an plazatxo hori konpondu eta eraldatzea onartu zuen Udal Batzorde Iraunkorrek<sup>8</sup>.

Garai batean han jartzen zen jaiotza eguberrietan; egun, taberna bateko terraza da. Haurrak hor dabilta jostari eta, udaberrian, plazatxo horretan dauden zuhaitz bakanak lore ikusgarritz apaintzen dira.

Esan bezala, nekez jarraitu badakioke ere Errenteriako kale baten 150 urtetik gorako bideari irudiak baliatuz, hau dugu salbuespena. Nolako itxura izango du kale honek 50, 100 edo 150 urte barru?

7. Errenteriako Udal Artxibategia. Lib. 8 Exp. 2 1946/1946.

8. Errenteriako Udal Artxibategia. Lib. 9 Exp. 11 1957/1957.

